

Hernanik kronika

TOKIKOM 2013ko abenduaren 22a, igandea::: 4.592 zk. ::: www.kronika.net

BERTSOLATA:

**Berrikuntza eta guzti dator
aurten ere Bertsolata /4-5**



Txistorra nahikoa izango dute gaur Portuko Santo Tomasetan

PORTU auzoan gaur ospatuko dute Santo Tomas eguna, eta eguerdiko 12:00etatik aurrera izango da festa jendea, txistorra usaiaren arrimuan. Urteroko ohitura dute Portun Santo Tomasetakoa, eta eguerdian bazkal aurreko mokadua eta tragoa egitera jende dexente animatzen da. Ondoren, Auzo Elkarteko Gabonetako Saskia zozketatuko dute. ||

Txistulari Bandak kontzertua emango du gaur Milagrosan

HERNANIKO Txistulari Bandak kontzertua emango du gaur, 13:00etik aurrera, Milagrosan. Biolin bikotea izango dute laguntzen, eta guztira 8 kanta joko dituzte. Gabonetako kontzertua da, eta urtero bezala Milagrosara inguratuko dira txistua eta musika gustoko duten hernaniarrak. Patxi Apezetxeak egingo ditu zuzendari lanak. /6

◆ ERRUGBIA

Hernanik galdu, baina latz jokatu

Burua altxata bukatu zuen atzo Hernanik, VRAC talde haundiaren kontra juxtu-juxtu galduta, azken minutuan. 22-24 joko ederra eta bonusa, hernaniarrek. /3

◆ KIROL SAILA

Kirol instalazioei buruzko prozesua bukatu da

Kirol Instalazioei buruz auzartzen aritu dira azken bi hilabeteetan 15-30 hernaniar inguru, eta txosten bat prestatu dute egin beharreko ekintza edo obrak zehazten dituztena: epe motzera eta luzera egin beharrekoak. /3

◆ HARRERA

Harrera Elkarte kartzela ondorengo laguntza ematen

Harrera Elkarte izan zen joan den astean Hernanin, eta beraien lana zein den azaldu zioten Udaletxeko Areto Nagusia bete zuten herritarrei. Presoei laguntzen diete, kartzelatik ateratzean dituzten arazoei aurre egiten. /6



Musika Banda eta ahotsa elkar hartuta, beste behin

OZENKIK eta Musika Bandak elkarrekin kontzertua eman zuten atzo, urtero bezala. Gabonetako kontzertua zuten, eta hamar kanta kantatu zituzten. Tartean, Hernaniko ahotsik dotoreenetako bat, Ainara Ortega, solista lanak egin zituen. Bakoitzak bere aldetik hiruna kanta kantatu, eta elkarrekin beste lau abestu zituzten, urtero bezala, bikain, elkar hartuta. ||

GAUR KRONIKAN

LABURRAK /2

Hernani Txartelari buruzko promozioa aurrera dioa. /5

Asteko Agenda /6

Gaizka Marcotek manga komiki liburua kaleratu du /8

ANTZIOLA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

**ANTZIOLA
OKINDEGIA**

**ARALAR
TABERNA**

GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8
943 33 15 06

GABON HAJETAN
OPARITU EDERTASUNA
ETA ONGIZATEA

ETORRI GURE TRATAMENDUAK EZAGUTZERA

nibiru
HARRERAREN ZENTROA

AUTOMAKELAJE
HESTASOA
MANIURA
FEDURRA
MASAJEAK

INDIRA
TRATAMENDUA
MIKROPIGMENTAZIOA
SPA TRATAMENDUA
FOTOCHEPLAZIOA

1001916,1
30100 Hernani
Gipuzkoa

T. (+34) 943 24 35 60
M. (+34) 659 581 536
E. info@nibiruedergintza.com
www.nibiruedergintza.com

ERREGE OPIL BEREZIAK DITUGU

- Azukre gabe
- Arrautzarik gabe eta espelta irinarekin

oa

Kardaberaz 13-16
Tel: 943 55 24 48

TXISTULARI BANDA

Kontzertua gaur, biolin bikotearekin

Gabonetako kontzertua eskainiko du gaur Txistulari bandak, eta zortzi kanta joko ditu, 13:00ean, Milagrosan. Patxi Apezetxeak egingo ditu zuzendari lanak.

TXISTULARI Bandak kontzertua emango du gaur, Milagrosan, 13:00ean. Gabonetako kontzertua izango da urtero bezala, eta zortzi kanta eskainiko ditu.

Gabonetako kontzertu honetan berezitasun bat ere izango dute, biolin bikotea izango baitute laguntzaile. Bi musika instrumentu horiek nahastuta entzuteko plazerria izango dute 13:00ean

Milagrosara inguratzen direnek. Zuzendari lanetan Patxi Apezetxea ariko da, beti bezala, eta gabon kantak izango dute protagonismoa.

Zortzi kanta, publikoaren gozamenerako Egitarauetan denetik dago. *Bendaña* kantuarekin hasiko dute, Enrique Aranbururen piezarekin. Pepe Iantziren *Otsango* joko dute gero, J.I.

Zortzi gabon kanta izango dira gaurko egitarauetan, gehienak. Horietatik bost ansorenatarren batek moldatuak dira.

Ansorenak moldatua. J.Uruñetaren *Baranbio* dute hiru-

garrena. Laugarrena herrikoia, *Gau Erdian*, J.I. Ansorenak moldatua. Klasiko bat gero, *Din dan don* J. Pierpontena eta J.I. Ansorenak moldatua. *Noche de paz* eta *Gabaren zoragarria*, Grüber eta Willisenak, J.I. Ansorenak moldatu eta nahatuak. *Zazpigarrena*, I. Ansorenarena da, *Ana Mari*. Eta azkena, *Zorionak*, P. and M.Hillena, eta J.J. Arregik moldatua. ■



Karabelen atzo bota zituzten etxea eta fabrika zaharra. Karabelgo zubi berria egiteko lanak aurrera dijoaz, eta atzo beste pauso bat eman zuten lan horietan. Karabel auzo aldera begira jarri eta ezker aldera geratzen zen etxea bota zuten atzo, eta baita fabrika zaharra ere, hainbat tailer ezberdin izandakoa. Obrak aurrera jarraituko dute, eta zubiaren eskubi aldean dagoen baserria, Eguzki Alde, urtarilean botako dute. Ondoren zubi berria egingo dute, eta hura eginda dagoenean, sei bat hilabete barru, zubi zaharra botatzen hasiko dira, gero Karabelgo urbanizazio berria egiten hasteko. ■

☞ **Jasota Bezala**

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Bilduri esker hernaniarrok 5 milioi euro aurrezten ditugu

PSOeren panfletilo bat jaso berri dut nere etxeko buzoian eta bertan agertzen diren aipamenak direla-eta, zehaztasun hauek egitea bururatu zait:

• Egia da, eta akaso batzuek ez zuten uste gertatuko zenik, BILDUK erraustegia

geratu duela. Bada erabaki horri esker hernaniarrok 5 milioi euro baino gehiago aurreztu ditugu eta gipuzkoarrok 200 milioi euro baino gehiago.

• BILDUK erakutsi du beste hondakinen politika batekin erraustegi pozointsu hori ez dela beharrezkoa. Badaude beste alternatiba batzuk, askoz merkeagoak eta osasun-

garriagoak.

• BILDUK agindu zuen erraustegia geratuko zuela eta halaxe egin du. Horregatik eman genion botoa eta bere hitza bete du. Jakina da PSOek ez duela holako ohiturarik, beraz, harrituta egotea ulertzekoa da.

• Azkenik esan aferan honetan benetako protagonistak eta benetan zorienduak izan

behar direnak herritarrak direla. Egunero egunero milaka eta milaka herritarrek, berziklatzearen aldeko keinu txiki batekin, benetako iraultza egin dute. Gipuzkoarron konpromisoarekin Gipuzkoa garbiagoa, osasuntsuagoa eta ekologikoagoa lortzen ari gara. Zorionak Gipuzkoa!

Mikel Arrieta Iraola

◆ **PALA****Bost hernaniar final erdietan, Napar Pala Txapelketan**

Napar Pala Txapelketa final erdietan da, eta tartean dira bost hernaniar. Lehenengo mailan elkarren kontra dira Eli Pagola eta Maider Huizi, Argain eta Eizagirre lagun dituztela. Goikoetxeak beste finalerdia jokatuko du Maddi Mendizabal lagun duela. Eta elite mailan Irazustabarrena eta Arrieta elkarrekin ariko dira, Aristorena eta Maider Mendizabalena kontra. Larragan eta Lekunberrin dira partiduak. ■

❖ **KIROL LUDOTEKA****Kirol ludoteka bihar eta beste bi egunez**

Aste honetan kirol ludoteka antolatu dute kiroldegian, hiru egunez, 10:00etatik 13:00era. Abenduak 23, 26 eta 27an izango da, eta dohainik da. ■

❖ **PSE-EE****Festa gaur, Casa del Pueblon**

PSE-EEK festa egingo du gaur, Casa del Pueblon, 2013 urtea agurtu eta 2014ari ongi etorria egiteko. Aperitibo txiki batekin bukatuko dute eta gonbidatuta daude azaldu nahi duten hernaniar guztiak. Egurdiko 12:00etatik aurrera. ■

❖ **GIBELALDE****Olentzero bitxienari saria, gaur**

Lizeagako Gibelalde auzo elkarteak antolatuta, Olentzero panpin lehiaketa antolatu dute, gaur. Entregatzeko epea 12:00ak arte, 13:00ak arte erakusketa, eta gero saribanaketa. Sormena baloratuko da, eta gai birziklagarriak erabiltzea. ■

❖ **JAIONE KONJELATUAK****200 euroko balioa duen saskia irabazi du 0615 zenbakia**

Jaione konjelatuak dendak aurtan 25 urte bete ditu, eta hori dela eta zozketa berezi bat prestatu du Gabonetarako. Saski edo lote handi bat prestatu du, 200 euroko balioa daukana, eta zenbaki saritua honakoa: 0615 zenbakia. ■

KIROL INSTALAZIOAK



Ostiralean aurkeztu zuten kirol instalazioei buruzko parte hartze prozesua nola joan den.

BMX parke bat edo frontoi txiki bat egitea, parte hartze prozesuko ondorio batzuk

Ostiralean aipatu zituzten epe motzean egingo diren ekintzak zein diren. Azken txostena kiroldegian eskatu liteke.

BUKATU da kirol instalazioei buruzko parte hartze prozesua, eta epe motzean egingo diren ekintzen artean dago BMX parke bat egitea, bizikletentzeko koskak dituen, saltoak eta abar egiteko. Frontoi txiki bat ere egin nahi da, oraingo frontoiko graden azpian, eta auzolanean egitea baloratzen ari dira. Iturri gehiago jarriko dira kirol praktikak egiten diren lekuetan (Tilosetan, adibidez), eta komun publikoren bat ere jarri nahi da...

Epe motzean eta luzean egin beharrekoak zehaztu dira, parte hartze prozesuan. Lau bilera egin dira. 33 lagun hasi eta 17k bukatu dute, eta parte hartzea nahi adinakoa izan ez bada ere, oso interesgarria izan dela adierazi zuten ostiralean, Beñat Aménabar eta Luis Intxaspek Gobernu Taldearen izenean, Imanol Azkuek prozesua bideratu duen Elhuyarreko teknikariak, eta Garbiñe Tijerok parte hartzaileen izenean.

Txosten osoa eskuratu nahi duenak kiroldegian eskatu dezake.

Parkeetan kirola egiteko makinak jarriko dira

Epe motzean egingo diren beste gauza batzuk ere aipatu zituzten ostiralean. Adinekoentzat, adibidez, parke eta leku publiko batzuetan makina bereziak jarriko dira

Ekintza batzuk 2014an egingo dira, eta horretarako diru partida bat gorde da Udal Aurrekontuetan.

Gobernu Taldeak azpimarratu du prozesu honetan garbi ikusi dela Hernanin sekulako pixua daukala kirolak

ariketa fisikoa egiteko.

Oinez ibiltzea gustoko dutenentzat, ibilbide sareak gehiago markatuko dira, seinalizatu, eta mapak ere egingo dira.

Ave Maria parkean kirol praktikak egiteko zer jarri litekeen aztertuko da, adibidez, mahai tenisean jokatzeko mahaia jarriko da.

Kiroldegiko sarrera nagusia, ataria, kirol espazio bezala jarriko da, adibidez, luza-ketak egiteko panelak...

Gazte talde batek proposatuta, BMX parkea jarriko dute, eta oraingo Skate parke txikia egokitu egingo da. Skate parkeak, adibidez, erabilera haundia daukala adierazi zuten, eta txukundu bat emango zaio.

Urumeako Gay Mur eraikinean pista libre egoten da arratsaldean eta asteburuetan, eta beste kirol batzuk egiteko lurra margotuko da.

Horiek dira egingo diren ekintza batzuk, baina gehiago zehaztuta daude txostenean.

Foroak jarraitu egingo du

Parte hartze foroak atera duen lehendabiziko ondorioa izan da, foroak segi egin behar duela, ikusi litezkeen txostenari jarraipena egin eta momentuero ikusten diren beharrik zerrindatzen joateko. Kirolgune Foroa deituko diote.

Prozesuaren ondorengo txostenean, egingarriak diren ekintzak aurrea jarri dira. Horietako asko 2014an egingo dira, eta horretarako diru partida bat gordeta dauka Udalak. Gainerakoak, zerrindan geratu dira, aurrera begira egiteko.

Azpimarratzeko hiru puntu

Gobernu Taldeak dioenez, egindako prozesu guztiaren ondoren, hiru puntu behintzat azpimarratzekoak dira. Bate-tik, prozesuan kirola ez dela zentzu klasikoan ulertu, bai-zik askoz zentzu zabalagoan. Bestetik, hor ikusi dela Hernanin kirolak benetan sekulako pixua daukala. Eta azkenik, jendeak azaldu duen dispozizio ona parte hartzeko, eta lau goizetan lanean aritzeko, prozesu honetan. ||

ERRUGBIA - OHOREZKO MAILA



Hernanik gogor eutsi zion VRAC liderrari azken arte.

Ametsa amesgaizto, azken minutuan

Hernanik 22-24 galdu zuen atzo, partidu guztian liderrari parez pare begiratu eta gero.

AMETSA zela ematen zuen, eta halaxe jokatzeko ari ziren hernaniarrak, harrigarri, liderra estu-estu hartuta... baina amesgaizto bihurtu zen; azken minutuan. 22-19 irabazten, eta 22-24 galdu, VRAC taldeko izarrak entsaioa eginda.

Lehenengo zatian VRAC eta bigarrean Hernani

VRAC laster jarri zen aurretik markagailuan, eta lehenengo zatia 8-19 aurretik bukatu zuen. Hernani borrokan ari zen baina hor etsitzen hasi ziren zaletuak. Bigarren zatian borrokara atera ziren, ordea, hernaniarrak, eta entsaioa entsaioaren atzetik, azken

momentuan 22-19 jarri ziren, lana eginda, eta aukerak aprobetxatuta.

Beste behin, partidurik onena Igor Genuak egin zuen. Bi entsaio egin zituen, gauzaketa, eta zigor golpeak ere bai. Azpimarratzekoa baita ere, Otaegik partidua bukatzeaz zela egindako entsaioa, hernaniarrei amesteko aukera eman ziena. Azkenean galdu, eta hurrengo partidua urtarrian, Santboiana zuzeneko aurkariaren kontra.

Zozketan irabazle: 1.208

Errugbi elkarteak txerrikumea zozketatu zuen atzo arratsaldean, eta zenbaki hau irabazle: 1.208. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **JOSE DOMINGO ARTOLA GOICOECHEA**
"Txomin"
Donostian hil da, 2013ko abenduaren 21ean, 87 urte zituela.

Emaztea: Teresa Aizalde; seme-alabak: Maite eta Iñaki Lekuona, Txomin eta Asuncion Casanova, Luis Miguel eta Mari Carmen Martija, Elena eta Jesus Mari Arregi, Silvia eta Jose Luis Makazaga; bilobak: Loraine, Ekain eta Itsaso, Eneko, Gorka, Aitor, Lander, Lide, Miren, Iñigo; Andoni, Amaia; birloba: Noa.

Hileta elizkizunak, ASTELEHENA, arratsaldeko SEIETAN, Hernaniko SAN JOAN BATAIATZAILEA parrokia-elizan.

Hernanin, 2013ko abenduaren 22an

OHARRAK: Gorputza Hernaniko VASCONGADA EHORZKETA TANATORIOAN egongo da, Orkolaga kalean, gaur arratsaldeko 13:00ak arte.

XIV. eta IX. URTEURRENA
Xixili Jauregi Iraola
1999ko abenduaren 22an hil zen, 69 urterekin.
eta
Antonio Odriozola Oiarzabal
2005eko urtarrilaren 31n hil zen, 88 urterekin.

Nahiz eta urrun joan mundu honetatik ez duzue alde egin gure bihotzetik.

Hernanin, 2013ko abenduaren 22an

BERTSOLATA

Bost ekitaldi aurtengo Bertsolatan, eta tartean, saio berezia: 'Kafkaren Aulkia'

- Astearte honetan bertan, gabon eskea dute baserriz baserri, olentzero eta guzti.
- Ostegunean, saio berezia, Kafkaren Aulkia, eta bertan ariko dira Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Jon Sarasua eta Pello Ramirez.
- Jaialdi nagusia, urtarrilaren 3an

UMEEN jaialdiarekin hasi zen Bertsolata, joan den asteartean, eta guztira bost saio izango dira aurten. Tartean, *Kafkaren Aulkia* izeneko saioa dute ostegunean, bertsoa, musika eta literatura biltzen dituen saio berria. Urteroko ekitaldiak dira gainerakoak. Olentzero baserriz baserri ibiliko da asteartean, urte zaharretako erronda dute abenduaren 31n, eta jaialdi nagusia urtarrilaren 3an.

Gabon eskea baserriz baserri, Olentzero tartean hartuta
Gabon bezperan urtero-urtero ateratzen da Olentzero, eskean, Hernaniko baserrietara. Zikuñaga eta Osiñagako baserri eta sagardogietan pasako dira koadrilan, trikitixa eta bertsoa lagun hartuta, etxe atariak berotzera. Autobusean inguratuko dira Osiñaga alde-raino, eta horretarako zita egin dute Biteri ondoan, arratsaldeko 15:30etan. Nahi duen guztia gonbidatuta dago.

'Kafkaren Aulkia', emanaldi berezia ostegunean
Iraulio Pantalone bertso eskolak urtero antolatzen du ekitaldi bereziren bat, eta aurten ere izango da, Kafkaren Aulkia, datorren ostegunean, 19:30etatik aurrera. Bertsoa eta literatura berez oso gertu egon badaitezke ere, ez dira askotan elkartu izan emanaldi bat elkarrekin egiteko. Andoni Egaña eta Uxue Alberdi bertsolariak prestatu dute saioa,



Eli Pagola eta Agin Laburu aritu ziren asteartean, umeen jaialdian.

Andoni Egaña eta Uxue Alberdi bertsolariak prestatu dute Kafkaren Aulkia saioa, Pello Ramirez musikariarekin batera. Horrez gain, saio bakoitzerako idazle bat gonbidatzen dute, eta Hernanira Jon Sarasua dator

Urtarrilaren 3ko jaialdian aukera izango da ikusteko bertsolariak ze gorputzalditan dauden txapelketa eta gero

Pello Ramirez musikariarekin batera, eta saio bakoitzean idazle bat gonbidatzen dute, beren saiora. Datorren ostegunean bertsoa ondo ezagutzen duen idazlea izango da tabladdu gainean: Jon Sarasua, hain justu ere.

Saioak beraz, bertsotik, literatura eta poesiatik eta musikatik izango du. Sarre-rak egunean bertan izango dira salgai, Biterin bertan, 6 euroan. Saioa, 19:30etan.

Jaialdi nagusiko txartelak salgai

Urtea bukatzeko erronda egingo dute bertso eskolako kideek, Ohitura Zaharrak abesbatzarekin batera. Abenduaren 31n, arratsaldeko 18:00etatik aurrera abiatuko dira Gudarien plazatik, eta kalean gora eta behera ibiliko dira, bertsoa eta kantua lagun dutela. Nahi duen guztiari esan diote azaltzeko.

Jaialdi nagusia, urtarrilaren 3an da, 19:30etan, Biterin. Txapelketa Nagusia pasa berritan, beti izaten da ikusmin berezia bertsolariak zein gorputzalditan dauden ikusteko, eta aukera polita izango dute Hernanin. Bertan ariko diren sei bertsolariak kantatu dute aurtengo txapelketan, saio batean edo bestean: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Unai Agirre, Unai Iturriaga, Iñaki Zelaia eta Jone Uria ariko dira. Gai jar-tzen, Agin Laburu.

Sarrerak salgai, 6 euroan, Tripontzi, Aralar eta Kixkalan.

Umeen saioa, bikain

Bertsolatako lehendabiziko saioa umeentzako jaialdia izan zen, asteartean eta Agin Laburuk eta Eli Pagolak gozatzen eduki zituzten Biteri bete zuten haur guztiak. ■

BERTSOLATA

Abenduak 24

OLENTZERO BASERRIZ BASERRI. 15:30etan Gudarien plazan.

Abenduak 26

KAFKAREN AULKIA. Andoni Egaña eta Uxue Alberdi bertsolariak Pello Ramirez musikariarekin. Jon Sarasua idazle gonbidatua. 19:30etan Biterin (sarrerak 6 euroan, egunean bertan).

Abenduak 31

URTE ZAHARRETAKO ERRONDA. 18:00etan Gudarien plazan.

Urtarrilak 3

JAIALDI MUNDIALA. Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Unai Agirre, Iñaki Zelaia eta Jone Uria. Gaijartzaile: Agin Laburu. 19:30etan Biterin (sarrerak 6 euroan, Tripontzi, Kixkal eta Aralar tabernetan).

HERNANI BERTSOPAPER LEHIAKETA



Bertsopaper sarietako irabazleak.

Gazteak badatoz...

BERTSOPAPER lehiaketa egin dute aurten ere Hernaniko ikastetxeetan, eta Garazi Urdangarinek irabazi du Hernaniko saria. Gai batzuk zituzten aukeran, eta Urdangarinek aukeratu zuen: *Baratza jarri dut*. Horrez gain, beste hiru saritu ere izan dira, ikastetxe bakoitzean bat. Langilen, Ane Gil; Elizatxon Nora Estevez; eta Urumean, Leire Alberdi.

Aurten ere parte hartzaile asko izan dira Hernanin, ikastetxe guztietan ari baitira bertsoa lantzen ikastorduetan.

Irabazlearen koplak

Joan den hilabetean egin nun baratza uzta ona lortzeko daukat esperantza

Aza, porru, lebu ta ilarrak batera astebururo noa baratza zaintzera

Norbaitek ondatu dit baratza osoa hondamena ikusita jarri naiz goxoa

Dena ondo txukundu ta berriz bakean mastin bat jarriko det baratza aldean.

CTRL+STUDIO AGENTZIA - HERNANI VISA TXARTELA

«4.000 kotxetan isunak jarri genituen, mezua jendeari zuzenean iristeko»

CTRL+Studio agentziak dauka Visa Hernani txartela promozionatzeko ardura. Adierazi dute, joan den astean isun itxurako publizitatea jartzea beren ideia izan zela, eta asmoa ez zela inor mintzea.



Ane Guerra, Aitor Saizar eta Aitor Polo, CTRL+Sudio agentzia kideak.

JOAN den astean, asteazken goizean hainbat hernaniarrek sustoa hartu zuen kotxera joan eta isuna jarri zeukala ikusi zuenean: «baina kotxea ondo aparkatuta daukat-eta!» izan zen askoren erreakzioa, eta gero konturatu ziren benetan zer zen. Hernani Visa Txartela promozionatzeko kanpaina zen, CTRL+Studio agentziak egindakoa. Bere ardura da Hernani Txartela promozionatzea, eta isun publizitarioak banatzea ere euren ideia izan zela dio, Aitor Saizar, agentziako kideak: «Udalak ez dauka inongo errurik, guk aurrez abisua emana geneu-

kan, eta baimena bagenuen, baina 4.000 isun banatu genituen, eta horren ardura gurea da». Hasi Ereñotzutik eta Hernaniko auzo guztietaraino iritsi zen isuna, eta eragin handia izan zuela dio Saizarrek, jendeak asko hitz egin zuelako txartelari buruz. «4.000 paper banatu genituen eta gure asmoa zen mezua jendeari zuzenean iristea. Uste dugu lortu dugula; multaren kontua ahaztu du jendeak, eta txartelari buruz hitz egiten ari da».

«Asko konturatu ziren kotxe guztiek zeukatela isuna» Dena dela, keja batzuk jaso zituen Udalak, eta barkamena ere eskatu zuen bihamunean. Intentzio txarrik batere

ez zuela dio Saizarrek. «Garai konplikatua da ekonomikoki eta aparkaleku aldetik, eta ulertzen eta sentitzen dugu jende bat haserretzea. Baita ere, esan behar dugu, asko izan zirela ingurura begiratu eta ikusi zutenak multa kotxe guztiek zeukate-larritara. Multan bertan ere jartzen zuen broma zela».

AITOR SAIZAR:

«Multarena jendeak ahaztu du, eta Hernani Visa Txartelari buruz hitz egiten ari da».

«Kanpainak segi egingo du urtarrilera arte, eta sorpresa gehiago ere izango dira».

Herritarren txartela, ez negozio bat

Sorpresa gehiago ere izango direla adierazi dute Ane Guerra, Aitor Saizar eta Aitor Polo agentziako kideek. «Kanpainak segi egingo du urtarrilera arte, eta sorpresa gehiago ere izango dira». Helburua da, jendeak barneratzea, benetan ze komertzio daukagun Hernanin, eta gure esku dagoela mantentzea. Alde horretatik Visa Txartela bultzada handi bat da. «Ez da negozio bat, herritarren txartela da, txartel unifikatu bat, eta aukera pila bat ematen dituen. Benetan interesgarria da txartel hau». ■

AURTENGO GABONETAN OPARITU ESKAPADAK



IHESALDIAK	
CANTABRIA Malatzetik Urrina 2 gau 3* Hotelean, pentsio erdian + Cabarceno Parkea, 2 heldu + ume 1	180 ⁰⁰ €
LIZARRA Uztaitetik Abendura Gau 1, 4* hotelean, gosariarekin + Kart	96 ⁰⁰ €
ASTURIAS Urte osoan 2 gau 3* hotelean, gosariarekin + Sella jebzera	65 ⁰⁰ €
ERRIOXA Gau 1, 4* hotelean, gosariarekin + Spa	95 ⁰⁰ €
HUESCA Urte osoan Gau 1, 4* hotelean, pentsio erdian + Bodega	77 ⁴⁰ €
CANDANCHU 2 gau, 2* hotelean, logela laukoitza + 2 Forfait	123 ⁰⁰ €

OPARI GEHIAGO ERE
BADITUGU

vip kofreak

49⁰⁰€TIK AURRERAKontsulta itzazu
aukera guztiak!HERNANI
BIDAIAKUrbietan, 6
943 33 00 49

www.hernanibidaia.com

AUKERA GEHIAGO ERE

www.bidaibila.com

Eguberri on
guztioi!!


GABONETAKO ZOZKETA

Ekartu zuten mazarriak gure bulegora eta parte hartu PORT-AVENTURARA joateko egingo dugun zozketan
ZOZKETA EGUNA: URTARRILAREN 3an GURE BULEGOAN, ARRATSALDEKO SEIETAN.

BALDINTZAK: Gaiak: "BIDAIAK"
Adina: 4-11 URTE

EPEA: urtarrilaren 3a baino lehen

SARIA: Apirilaren 21etik 27ra
Port-Aventuran 6 gaueko egonaldia
Hotela pentsio osoan eta
Port-Aventurarako 2 egunetarako sarrerak
2 heldu eta 2 umeentzako



Juankar Ioldi eta Jon Ugarte, Harrera Elkarteko kideak.

«50 preso ohi elkarrizketatu dira, kartzelatik ateratzean zer behar dituzten jakiteko»

Harrera elkarteak «izaera asistentziala eta eraginkortasun puntu haundi bat» daukala adierazi zuten joan den astean Hernanin.

HAINBAT urte kartzelan pasa edo herritik kanpora eta berriz herrira bueltatzea ez da erraza izaten. Harrera Elkartea sortu berri da, eta helburua du laguntza ematea herrira etorri eta zailtasunak izan ditzakeen pertsona horri.

Natza elkarteak antolatuta, hitzaldia eman zuten joan den astean Harrera Elkarteko Juankar Ioldik eta Jon Ugartek, Hernanin ere taldetxo bat sortzeko asmoarekin. Ioldik eta Ugartek adierazi zuten, horrelako elkarte baten beharra aspalditik ikusten zen, eta orain behar hori haunditu egin da, ia 70 preso batera xamar atera direnean.

«Behar haundiak»

Preso eta iheslari asko eta asko dira Euskal Herrian, gatazka politikoaren ondorioz. Hitzaldian adierazi zuten, 1936tik gaur egun arte, presorik gabeko astebe- te bakarrik izan omen da, amnistia eman zenean, hain justu. Gero, 1980an berriz bete egin ziren kartzelak.

1978tik 8.000 preso atera dira kalera. Orduan hasi ziren ikusten preso egon eta gero herrira bueltatu eta laguntza behar izaten zela, eta gaur egun ere beharrak tankerakoak izaten omen dira. «Behar haundiak izaten dira. Guk diagnostiko bat egin dugu, eta errealitate asko errepikatu egi-

IDEIA OROKORRAK:

«Normalean hirira bueltatzen den presoaren egoera zailagoa izaten da herri txiki edo ertainera datorren presoarena baino»

«Asko eragiten du presoaren adinak, eta barruan egin dituen urte kopuruak»

«Eragina dauka etxeak eta koadrilak: nola utzi zen etxe giroa, edo lagun koadrilak jarraitzen duen bilduta edo sakabanatuta dagoen».

ten dira». 50 preso ohi hartu dituzte, eta galdetegi bat pasa diete. Hortik ateratako emaitzen txostena beste 250 preso ohiri pasa diete, eta horien erantzunekin diagnostiko oso bat egin du Harrera Elkarteak.

Errepikatzen diren errealitate eta beharrak

Diagnostikoa egina dago, eta egoera oso zehatzak badauden arren, errepikatzen diren puntu batzuk ere badira,

azpimarratzeko modukoak. Adibidez, kasu askotan izaten dira antsietateak, fobiak, oldartzeko joerak... gaitzak ere aipatzen dira: ultzerak, min biziak...

Askok diote hirira bueltatzea edo herri txiki batera bueltatzea ez dela gauza bera. Orokorrean, errazago moldatzen dira herri txiki edo ertainetan. «Beste puntu bat ere gehienek aipatzen dutena: presoaren adina, eta zenbat urte egin dituen barruan». Garrantzitsua da, baita ere, etxe giroa nola utzi zuen, edo koadrilak elkartuta jarraitzen duen...

«Behar zehatzak izaten dira: dentista, lentillak, lana...»

Harrera Elkarteak oso izaera «asistentziala» duela adierazi zuten hitzaldian, eta nahiko modu praktikoa saiatzen direla funtzionatzen. «Osasun txartela egiten lagundu, nortasun agiria berri...». Ekonomikoki ere laguntza behar izaten da: «lana bilatzen laguntzea, alkilerria ordaintzen lagundu... askotan hori baino ere zehatzagoa izaten da beharra: lentillak adibidez, hortzak...».

Harrera Elkarteak 1.500 bazkide ditu, eta pixkanaka talde hori haunditzea nahiko lukete, elkarteak laguntza emateko baliabideak haundia- goak izan daitezten. ||

X Asteko agenda

ABENDUAK 23:

• **Olentzero kaleetan barrena:** *Hernani Musika Eskola Publikoko ikasleak.* Gudarien Plazatik, 17:00etan.

ABENDUAK 24:

• **Baserriz Baserri Olentzeroa:** irteera Biteri kultur etxetik, 15:30etan.

• **Gabon kantak:** *Goiz Eguzki abesbatza.* Kalez Kale, 16:30etan.

• **Gabon kantak:** *Hernaniko Parrokiko abesbatza.* Agustindarren elizan, 17:00etan.

• **Olentzeroa kaleetan barrena:** *Ttaria dantza taldea.* Plazatik, 18:00etan.

• **Gabon gaueko kale buelta:** *Kantuz abesbatza.* Milagrosako kaperan, 18:00etan.

• **Gabon gaueko erronda:** *Hernaniko Musika Banda.* Gudarien plazatik, 20:00etan.

ABENDUAK 25:



• **Eguberri eguneko alborada:** *Hernani Musika Eskolako txistulariak.* Kalez kale

ABENDUAK 26:

• **Gazte Txokoa:** Ginkana erraldoia Hernanin barrena.

ABENDUAK 27:

• **Haurrentzat tailerrak:** 6-11 urte bitartekoentzat,



Udaleko arkupean, 16:30etatik 18:30etara.

• **Gabonetako kontzertua:** *Hernani Musika Eskola Publikoko txistulariak, abesbatza eta Hernasax*

• **Gazte txokoa:** Tras festa egunean zehar eta Ginkanako garaileen sari banaketa.



"BERRIAK"
HERNANIKO MERKATARIEN
ETA OSTALARIEN ELKARTEA

Hernanik
kronika

**GABONETAKO
ZOKKETA
2013**

IRABAZLEAK

1.go SASKIA

3.276 *Non saldua:
Dorronsoro-Lizeaga*

Jaione Kongelatuak Iberiko sorta
Aitor Peña Bost litro olio
Antziola Okindegia Erregetako roscoa
Kaixo Emakumezkoen aterkia eta kartera
Aralar Arnegui Magnum kaja
Galerias Buen Precio Kristalezko fruteroa
Oindi Viña Real ardo kaja
Mariscos Hernani Marisko saskia
Dobera - Kronika Mahai jokoa
Ilargi Lepoko bat
Amegar Kafetera CG412
Adarraga Turroi sorta
Balantxa Ile-sekadorea
Biokbi Eguzkitako betaurrekoak
Urrats Etxeko zapatilak aukeran

3. SASKIA

1.584 *Non saldua:
Dorronsoro-Lizeaga*

Peña Jaboi kaja bat
Antziola okindegia Erregetako roscoa
Jaione konjelatuak 2 kg langostino
Kaixo Gazteentzako motxila + estutxea
Galerias Buen Precio Kristalezko frutero bat
Errioguarda Otordu bat 2 pertsonentzat
Kera Jertse bat
Dobera-Kronika Mahai jokua
Nekane Estetika Aurpegi garbiketa bat
Ikusi makusi Puzzle bat
Diztira Lepoko bat
Urumea burdindegia Labana sorta bat
Portalondo Maletin bat
Marife Mediana bat

2. SASKIA

2.407 *Non saldua:
Irigoien oinetakoak*

Hernani Bidaiak
Posada Santa Ana Suances (kantabria)
2 gau pentsio erdian, bi pertsonentzat
Kaixo
Maleta bat
Diztira
Nezeser bat

4. SASKIA

1.613 *Non saldua:
Conde kioskoa*

Antziola okindegia Erregetako roscoa
Galerias Buen Precio Kristalezko ordulari bat
Jaione konjelatuak Iberiko sorta
Nekane Estetika Aurpegi garbiketa bat
Ikusi makusi Wou kotxea
Diztira Eskularruak
Urumea burdindegia Kafe katilu sorta
Portalondo Agenda bat
Dobera-Kronika Mahai jokua
Marife Ganba kaja bat
Telemar 7"ko tablet bat

**MILA ESKER
PARTE HARTZEAGATIK!!**



TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622
● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
● FARMAZIAK ● Egunez: Castilla Urbieta 7 - 943 552941 ● Gauzez: Aldabe Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

EGURALDIA ● GAUR ● Fronte bat pasako da baina zatituta, eta ez du euririk egingo seguruenara. Ostarteak ere izango dira, eta tenperatura berdin. Min.5° / Max.13°
● BIHAR ● Hego-mendebal gogor joko du eta tenperak igo egingo dira pixka bat. Lainoa nagusi, baina eguzkiak egingo du sartu-aterakoren bat. Gauean euri arriskua. Min.6° / Max.16° (euskalmet)

MANGA KOMIKIAK - 'LA MELODIA DE LOS INFIERNOS' LIBURUA KALEAN DA

Gaizka Marcote Paz - Egilea:

«Istorio apokaliptiko bat kontatzen dut eta ez da umeei zuzendutakoa»

Gaizka Marcote hernaniar gaztearen liburua kalean da: 210 orriz dago osatuta eta guztiak eskuz eginak dira. Orain lanean ari da, datorren edizioa prestatzen.

HAMASEI urterekin bere ametsa egi bihurtu du Gaizka Marcote Paz hernaniarrak: Manga komiki bat kaleratzea. *La melodía de los infiernos* da lanaren izena, japoniarrez, *Jigoko Senritsu*. Momentuz, internetez erosi liteke, Amazonen eta Pali-brio editorialaren web orrian.

«Naruko serieak engantxatu ninduen Manga komikira» Marraztea betidanik gustatu izan zaio Gaizkari, baina Manga komikiena berri xamarra da. Naruko serieak piztu zion grina, orain oso gutxi, eta ordu-tik, ezin utzi: «marrazten hasi nintzen, lan sueltoak hasieran, eta gero istorio bat egin neza-keela konturatu nintzen. Amak egiten ari nintzen lanak ikusi zituen eta beti izan dut ondoan, laguntzeko prest».

Betiko komikien eta Mangen arteko aldeari dagokionean, Gaizkak dio istorioetan dagoela alde nabarmena: «komiki tradizionalak oso amerikanoak

izan ohi dira, super heroiez josiak. Mangek publiko helduagoa dute, gai sakonagoak dituzte. Nire liburuan esaterako, istorio apokaliptiko bat kontatzen dut. Mundua kutsatzen duten monstro asko daude istorioan, eta protagonistek erremedioa bilatzea dute helburu; lortu edo ez, bere burua salbatzea lortzen dute».

Manga liburuan beste berezitasunetako bat da atzekoz aurrera irakurtzen direla. Liburuaren azala atzean du, eta handik aurrera hasten da istorioa. Gainera, marrazki ia guztiak txuri beltzean izan ohi dira.

Edizioa, berak egina

Liburuaren kaleratzea Pali-brio editorialaren bitartez egin du, Estatu Batuetan bizi duen amonak lagunduta. Edizio lan guztia ordea, Gaizkak berak egin du. Marrazki guztiak eskuz eginak dira, eta bera aritu da banaka eskaneatzen. Azaleko



Gaizka Marcote Paz hernaniarra, liburua eskuartean duela.

marrazkia ere berak egina da; eta liburuaren tamaina eta azalaren materiala ere, berak aukeratuak dira.

Aurreneko lana kalean da, eta orain, bigarrena osatzeko lanetan ari da Gaizka. II

IRAGARKI MERKEAK

Garaje itxia alokagai, handia (40 m2), Txirrita kalean.
Deitu: 943 55 13 02

Etxe unifamiliarra salgai, 160 m2 + 250 m2 lorategi + 90 m2 terraza, trastelekua, txokoa, garajea, 2 solairu.
Deitu: 699 49 22 35 (partikularra)

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

EDOZEIN KLASEKO LURRAK JARTZEN DITUGU

PAPER PINTATUETAN 10% DTO

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

PVC MOKETA LAMINATUA PARKETA

EROSKETAK ETXERA BIDALTZEN DIZKIZUEGU

Laminatua AC4 Hidrofugoa kolokatua eta guzti.

26,90€/m²

PROCOLOR ZENBIZIA MARGOAK

Landaribur, s.l.

asteleheneretik ostiralera
7:30 - 13:00 / 15:15 - 19:00

Lorunbatetan
9:00 - 13:00

943 552131
KARDABERAZ 45, HERNANI

GRUPO OTEIC

Parque Empresarial Zuatzu, Edificio Igeldo Planta 1ª
Tel. 943 31 68 69
Fax: 943 31 64 68
E-mail: oteic@oteic.com
20018 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, hurrengo hiru adierazten dizugu: emandako Datu Pertsonalak OTEIC CONSULTING GROUP, S.A. enpresaren ardurapean dauden Langile Hautaketarako Filtrategian sartuko direla. Datu horiek ikusteko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidez baliatzeko, honako helbidera jo dezakezu: oteic@oteic.com.

GRUPO OTEIC

• ESTRATEGIA Y CORPORATE
• PERSONAS Y ORGANIZACIÓN • GESTIÓN INDUSTRIAL
• SISTEMAS DE GESTIÓN • LEGAL Y EMPRESA FAMILIAR

aguas del añarbe
aguas urak

Agua del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.k, Añarbeko Uren Mankomunitatea kudeatzen duen enpresa publikoak, lanpostu hau bete behar du:

Langile bat Añarbeko Presarako

(Erref: 2978)

Presako Sekzioburuaren menpe egongo da, bost pertsonen osatutako talde bateko partaide izango da, eta bere eginkizunak hauek izango dira: Añarbeko presa eta urtegia; eta Behe Kanala ustiatu eta mantentzea; hala nola zentral hidroelektrikoen ustiapenean laguntzea.

Postuaren profilak zera aurreikusten ditu: Lanbide Heziketa edo baliokidea duen pertsona, mekanika, elektrizitatea edo antzeko espezialitatearekin; 2-4 urteko esperientzia ekipo elektromekanikoak mantentzen eta konpontzen; informatikako oinarriko ezagutza; inizatiba izatea eta taldean lan egiteko gaitasuna. Inguru geografikoa eta euskara ezagutzea aintzat hartuko dira. Eskaintzen da: iraupen mugatuko kontratua, errelebo-kontratuaren modalitatean, eta lanaldi osoa.

Interesatuak seleccion@oteic.com edo Donostiako 686-20080 posta-kutxatilara idatzi beharko dute, curriculum-a erantsiz eta goian agertzen den erreferentzia adieraziz. Soilik aukeraturako hautagaiei erantzungo zaie.